ELHUYAR
aholkularitza

# 1. Batzarraren helburuak

A. Euskararen Plan Estrategikoa lantzeko prozesuaren berri ematea
    1. Zer da EBPN?
    2. Zer esparru hartzen ditu?
    3. Nola landuko dugu?
B. Leioako euskararen egoeraren inguruko datuak aurkeztea
C. Esparruz esparru, lanketa egitea
D. Ondorio nagusiak ateratzea

# A. 1. Zer da EBPN?

**Udalaren gidaritzarekin eta herritarren adostasunarekin** bideratu nahi den plan bat da (neurri eta ekintza multzoa), honako helburua duena: **leioaztarrei euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzea eta Leioako ohiko hizkuntza euskara izatea.**

ELHUYAR
aholkularitza

# A. 2. Zer esparru hartzen ditu?

1. Familia-transmisioa
2. Euskalduntzea-Prestakuntza
3. Irakaskuntza
4. Administrazioa (Udaleko erabilera-plana)
5. Lan-mundua
6. Aisia
7. Kirola
8. Kulturgintza
9. Komunikabideak
10. Teknologia berriak

# A. 3. Nola landuko dugu?

**Euskararen Plan Estrategikoa herritarrekin landuko dugu.**

**Bi orduko bi saio egingo ditugu:**

**- Urriaren 3an**

**- Urriaren 17an**

ELHUYAR
aholkularitza

# A. 3. Nola landuko dugu?

**SAIOEN EDUKIA**

1. **saioa:** Leioako euskararen egoeraren inguruko hausnarketa egitea

2. **saioa:** Euskararen egoera hobetzeko ideiak eta neurriak proposatzea

ELHUYAR
aholkularitza

# B. Leioako euskararen egoeraren inguruko zenbait datu

# Familia

- Etxean **erabiltzen** den hizkuntza:

**% 4,71k euskara eta % 90,2k gaztelania**




Datuen iturria: EUSTAT (2006)

# Familia

Euskara ama-hizkuntza: **% 7rentzat**
Gaztelania ama-hizkuntza: **% 86rentzat**




Datuen iturria: EUSTAT

ELHUYAR aholkularitza

# Euskalduntzea-prestakuntza

• **EUSKALTEGIETAKO IKASLE-KOPURUA** 2011-2012:
**592 ikasle.** Horietatik 234 ikasle Leioako Mastitxun. 2004an 830 ikasle, 2011n 911. Urtez urte hor inguruan.

• Xede bereziekin antolatutako ikastaroak:
**Berbalagun + Gurasolagun: 40 pertsona.**

• **BIZTANLEEN HIZKUNTZA-GAITASUNA:**



# Euskalduntzea-prestakuntza

• Euskal hiztunen **alfabetatze-maila**: **% 85,45 alfabetatuak dira**




Datuen iturria: EUSTAT (2006)

# Kale-erabilera

- Ezagutza- eta erabilera-datuak:




Datuen iturria: KALE-NEURKETA (2006)

# Kale-erabilera

- Haurrek euskara gehien.




Datuen iturria: KALE NEURKETA (2011)

ELHUYAR aholkularitza

# Matrikulazioa, 2011-2012

| ikastetxe publikoetan | | | |
|---|---|---|---|
| ereduak | A | B | D |
| Haur Hezkuntza<br>Lehen Hezkuntza | 0 | 321 | 853 |
| DBH<br>Batxilergoa<br>Lanbide Heziketa | 623 | 91 | 325 |

| ikastetxe pribatuetan | | | |
|---|---|---|---|
| ereduak | A | B | D |
| Haur Hezkuntza<br>Lehen Hezkuntza | 1.580 | 810 | 1948 |
| DBH<br>Batxilergoa<br>Lanbide Heziketa | 1.094 | 268 | 841 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **3.297** | **1.490** | **3.967** |

ELHUYAR
aholkularitza

# Administrazioa

• Udalean 148 lanpostu daude eta **langileen % 63k egiaztatuta** dauka dagokion hizkuntza-eskakizuna.

• **Arduradun politikoen % 57** dira gai **euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko.**

• **Herritarrak Udalarekin harremanetan** jartzen direnean, euskara erabiltzen dute **% 10ean.**

• **Udalak % 80** erabiltzen du euskara **lehenengo hitza edo agurra** denean, euskaraz gauzatzen diren **elkarrizketak % 35** inguru dabiltza.

• Langileen arteko **harreman informaletan euskararen erabilera % 30 da.**

ELHUYAR
ahokularitza

# Lan-mundua

•Euskarak 6,24ko “balioa” du merkatarien ustez. (Udalak Merkatariei egindako inkestaren erantzunetik)

•% 88,09k arreta euskaraz eman nahiko lukete, baina % 66,66 ez dira inoiz saiatu langile euskaldunik kontratatzen.

# Aisialdia

• Udalak **haur eta nerabeentzat** antolatutakoa, oro har, **euskaraz izaten da.**

# Kirola

- **Kirol-taldeak:**
  - **Futbola:** txikiei entrenamenduak eta kanpusa euskaraz.
  - **Saskibaloia:** kanpusa euskaraz.
  - **Gimnasia erritmikoa:** begirale euskaldun bakarra dago eta entrenamenduak gaztelaniaz izaten dira. Komunikazioak ele bietan.
  - **Mendi-taldea:** komunikazioak ele bietan.

- **Kiroldegiko ikastaroak** gehienbat **gaztelaniaz** eskaintzen dira.

- Kiroldegiko **begiraleei 2. HE eskatzen zaie**, baina **guztiek ez** daukate.

- Kirolgune nagusietako **hizkuntza-paisaia euskara hutsez edo ele bietan** dago.

ELHUYAR
aholkularitza

# Kulturgintza

- **Haurrentzat antolatutako programazio guztia euskaraz** izaten da.

- **Nagusientzako antolatutako programazioa (antzerkiak,…), batez ere, gaztelaniaz** izaten da.

- Udal liburutegian **euskaraz erabilgarri dauden irakurgaiak %18,6** dira.

- Liburutegian herritarrek **euskaraz hartutako irakurgaiak % 16** dira.

ELHUYAR
aholkularitza

# Komunikabideak

•Udalak argitaratzen duen **publizitatea ele bietan da.**

# Teknologia berriak

- Udaleko **web-orrian informazioa ele bietan** zintzilikatzen da.

# Udalak antolatutako proiektuak

- **Txilinbueltaka:** euskara eta aisialdia lotzeko irteerak (7-12 urte)
- **Olgetan:** jolasak eta tailerrak euskaraz (5-11 urte)
- **Merkatari:** udalerriko merkataritzan euskararen erabilera normalizatzeko programa (itzulpenak, aholkularitza, errotuluetarako diru-laguntzak,...)
- **Euskara ikasteko diru-laguntza:** matrikularen kostuaren %75eraino.
- **Erabiliz:** aisialdi eta girotze-ekintzak euskaraz: dantza, kanta, kaleko ikuskizunak.
- **Berbalaguna/Gurasolaguna:** euskaraz hitz egiteko taldeak.
- **Berdinean euskaraz / Beharsarea:** lana euskaraz egin nahi duten eta zerbitzuak euskaraz eman behar dituztenak harremanetan jartzeko datu-basea. Beharsarea web-aplikazioa.
- **Erdu berbetan:** Leioako elkarteetan euskararen erabilera normalizatzeko programa (itzulpenak, aholkularitza, errotuluetarako diru-laguntzak,...)
- **Toponimia:** Leioako toponimia jasotzeko beka, eta liburu-argitalpena.
- **Ondare etnolinguistikoa:** Leioako ondare etnolinguistikoa jaso eta zabaldu. Ikastetxeetarako DVDa, Uribe Kostako bertsolarien monografia.
- **Familia bidezko transmisioa:** jaioberrien gurasoei motibazio-opariak, guraso eta umeentzako ikuskizunak...
- **D Bitamina:** gurasoak matrikulazio-garaian D ereduaren abantailez ohartarazteko kanpaina